

2020. urteari errepassoa

Sekuentzia didaktiko honetan, 2020. urtean izandako gertaerarik esanguratsuenei erreparatuko diegu. Gaiaren inguruan jarduteko honako ariketa hauek egiteko aukera izango duzu:

- Gaiari murgiltzeko, galdera bati erantzun.
- 2020. urteko titularrak irakurri eta zuen zerrendakoekin alderatu.
- Banaka, titularrak gaia (politika, hezkuntza, kultura...) sailkatu.
- Positibo eta negatiboen arteko bereizketa egin. Ondoren, bikotearekin alderatu iritziak eman.
- Titularrak berrirakurri aditzak identifikatzeko, eta ondoren, sailkatzeko.
- Binaka, 2021. urteko titular positibo bat sortu.

Oharra: Ikasgelan ez bazaude, talde-jarduera hau egiten hasi aurretik, adostu irakaslearekin batera zuen arteko komunikazio-tresna: foroa, posta elektronikoa, WhatsApp, Teams, Hangouts, Google Duo, Skype ...

1. 2020. urteari, agur!

2020. urteari amaiera eman genion pasa den hilabeteetan eta urte berriari begira jarri gara, jada. **Jarri binaka eta erantzun:**

- Zeintzuk izan dira 2020. urteko gertakaririk garrantzitsuenak? Zerrenda itzazu.

1. -----
2. -----
3. -----
4. -----
5. -----
6. -----
7. -----
8. -----
9. -----
10. -----

2. Urteko gertakari nagusiak

Aurten, askotariko titularrak ikusteko aukera izan dugu gure egunkarietan, batzuk besteak baino atseginagoak.

Testua irakurri

Hona hemen, 2020. urtean, gure egunkarietan argitara eman diren zenbait titular.

Arretaz irakurri:



90 urteko emakume bat, Pfizerren txertoa jaso duen lehena munduan



Eskolak bertan behera geratuko dira EAEn bihartik aurrera

berria

naiz:

Quino hil da, Mafaldaren egilea

Mila milioi animalia desagertu dira jada herrialdeak bizi dituen suteen ondorioz



JARRAIPENA | Floyd afro-amerikarraren hilketak arrazakeriaren aurkako eztanda soziala eragin du

berria

Bidenek Kamala Harris senataria aukeratu du presidenteordetzarako



Koronabirusa pandemia izendatu du Osasunaren Munduko Erakundeak



Erresuma Batuak harremanak eten ditu behin betiko EBrekin

Testua irakurri eta gero

Binaka jarraituz, erantzun:

- *Titularrek bat egiten al dute zuen zerrendan agertzen diren gertakariekin?*

Jarri banaka eta sailka itzazu gaika (politika, zientzia, hezkuntza, kultura ...)



POLITIKA

KULTURA

INGURUGIROA

OSASUNA

HEZKUNTZA

GIZARTEA

Banaka jarraituz, titular positibo eta negatiboak berezizi.



NEGATIBOAK



POSITIBOAK

Ondoren, binaka, alderatu zuen sailkapenak iritzia emanaz.




- **Nire ustez**, ez da batere positiboa...

- Ez nago konforme/ ados
- Ez zait iruditzen ...-(e)NIK
- Ez dut uste ... -(e)NIK

- Nik uste dut ... -(e)LA
- Nire ustez ...
- Iruditzen zait ... -(e)LA
- Badakit ... -(e)LA



- **Ez dut uste** titular hori negatiboa denik...



Testua irakurri hizkuntzari erreparatuz

Jarri banaka. Titularrak berrirakurri eta fija zaitez aditzetan, identifikatu eta azpimarra itzazu.



ADITZ-ASPEKTUA	
BURUTUA	Oraina · joan/ ibili/ ausartu NAIZ · Bidali/ egin/ erabaki DUT
	Iragana · joan/ ibili/ ausartu NINTZEN · Bidali/ egin/ erabaki NUEN
BURUTUGABEA	Oraina · joaTEN/ ibilTZEN/ ausartZEN NAIZ · BidalTZEN/ egiTEN/ erabakiTZEN DUT
	Iragana · joaTEN/ ibilTZEN/ ausartZEN NINTZEN · BidalTZEN/ egiTEN/ erabakiTZEN NUEN

Sailka itzazu markatutako aditzak, aspektuaren arabera, eta galderari erantzun.



BURUTUA

BURUTUGABEA

ORAINA

ORAINA

IRAGANA


IRAGANA

BESTEAK

- Aditz mota bat erabiltzeko joera dagoela esango zenuke? Zergatik?

Ikasitakoa kontuan hartuta ...

Jarri binaka eta, 2021. urteari hasiera emateko, titular positibo bat asmatu.





Sakontzeko ...

Zure bizitzako titularrak

Jarri banaka eta erantzun:

- Zeintzuk izan dira 2020an zure inguruan bizi izan dituzun gertakaririk esanguratsuenak?

1. -----
2. -----
3. -----
4. -----
5. -----
6. -----
7. -----
8. -----
9. -----
10. -----

Erantzun-orria

Jarri banaka eta sailka itzazu gaika (politika, zientzia, hezkuntza, kultura ...)

POLITIKA

“Bidenek Kamala Harris ...”
“Erresuma Batuak harremanak eten ditu...”

INGURUGIROA

“Mila milioi animalia desagertu dira ...”

HEZKUNTZA

“Eskolak bertan behera...”

KULTURA

“Quino hil da, Mafaldaren egilea”

OSASUNA

“90 urteko emakume bat ...”
“Koronabirusa pandemia izendatu du OMEK”

GIZARTEA

“Floyd afro-amerikarraren hilketak...”

Sailka itzazu markatutako aditzak, aspektuaren arabera, eta galderari erantzun.

BURUTUA

ORAINA

“hil da”
“desagertu dira”
“eragin du”
“aukeratu du”
“izendatu du”
“eten ditu”

BESTEAK

“geratuko dira”